



Antsoaino  
Udala  
Ayuntamiento  
de Ansoáin

Udalaren informazio aldizkaria  
Boletín de información municipal  
2024 ABENDUA-DICIEMBRE / Nº 41. ALEA

# ANTSOAIN



## Jantoki komunitarioa Comedor comunitario

51 parte-hartzaile  
proiektu pilotuan  
51 participantes en  
el proyecto piloto

**Argitaratzailea:**

Antsoaino Udala.

**Erredakzio Kontseilua:**

Silvia Miranda, Sara Gila, Carlos Jiménez, José Javier Andueza, Francisco Javier Vilchez.

**Egilea:** Heda Comunicación, S.L.

**Argazkiak:** Jon Urriza.

**Ale kopurua:** 4.700 ale.

**Doako banaketa.**

**Edita:** Ayuntamiento de Ansoáin.

**Consejo de Redacción:**

Silvia Miranda, Sara Gila, Carlos Jiménez, José Javier Andueza, Francisco Javier Vilchez.

**Realiza:** Heda Comunicación, S.L.

**Fotografías:** Jon Urriza.

**Tirada:** 4.700 ejemplares.

**Difusión gratuita.**

**D.L. - L.G.:** NA 942-2016

Bizilagunak  
gogoz Plan  
Estrategikoa  
diseinatzeko  
prozesuan

La población  
se implica  
en el diseño  
del Plan  
Estratégico

Antsoain,  
A-25eko  
kanpainarekin  
bat eginik

Ansoáin se  
suma a la  
campana  
del 25-N

JARRAI GAITZAZU SAREETAN / SÍGUENOS EN REDES



Antsoaino Udala Ayuntamiento de Ansoáin



Antsoaino Udala Ayuntamiento de Ansoáin



## Bizilagunak gogoz Antsoaingo etorkizuna lantzen

### La población se implica en el futuro de Ansoáin

Herritarrak, teknikariak eta politikariak buru-belarri ari dira lan taldeetan eta inkestetan

Ciudadanía, personal técnico y político participan activamente en los grupos de trabajo y encuestas

**L**rail eta urrian, aurrerapausoak eman dira Antsoaingo Plan Estrategikoa (2024/2030) prestatzeko, Agenda 2030ekin eta Garapen Jasangarriko Helburuekin bat eginik, udan hasitako lanari jarraipena emanda. Udalak, izan ere, herritarrak prozesuan parte hartzera gonbidatu zituen, "Antsoain gara-Somos Ansoáin" goiburuko kanpainaren bidez, eta jendeak oso ongi erantzun du. Lan taldeen lehen bilera txandan, informazio arras garrantzitsua bildu eta ekarpen baliosak egin ziren. Bederatzi pertsonak Talde Politikokoan parte hartu zuten; bertan, EH Bildu, PSN, Contigo Zurekin eta Geroa Baike zinegotziak daude ordezkatuak. Beste 14 lagun Talde Teknikoan aritu ziren, guztiak

ere udal langileak. 13, berriz, herritar, talde eta elkarreendako Foro Sozialean; eta 46 bizilagun, azkenik, gai zehatzak lantzeko taldeetan. Herritarrek, gainera, beren ikusmoldea agertu dute bai online galdetegien bidez, bai off-line moldeko herri kontsulten bidez, bai leku jendetsuetan jarritako postontzien bidez. Interneten bitartez, zehazki, 105 galdetegi bete dira, eta 191 lagunek paperean bidali dute beren iritzia. Galdetegien % 70 emakumeek bete dituzte. Oraingo fasean, eginkizuna, ikuspegia eta balioak zehaztuko dira. Ondoren, berriz, helburuak, bai eta helburuak lortzeko eginen diren ekintzak ere. Azken agiria 2025eko ekainean aurkeztuko da.



**D**urante los meses de septiembre y octubre se han dado nuevos pasos para la elaboración del Plan Estratégico de Ansoáin 2024/2030, alineado con la Agenda 2030 y los Objetivos de Desarrollo Sostenible iniciada en verano. El Ayuntamiento invitó a la población a participar en el proceso en una campaña de difusión que tuvo como lema "Antsoain gara-Somos Ansoáin" y la respuesta ha sido muy positiva.

La primera tanda de reuniones de los grupos de trabajo se recopiló información muy relevante y se realizaron aportaciones constructivas. Nueve personas participaron en el Grupo Político, en el que están representados concejales y concejalas de EH Bildu, PSN, Contigo Zurekin y Geroa Bai; otras 14 personas tomaron parte en el Grupo

Técnico, del que forma parte el personal municipal; 13 se sumaron al Foro Social, abierto a ciudadanía, colectivos y asociaciones; y 46 vecinas y vecinos se reunieron en los Grupos Temáticos. Además, la ciudadanía también ha aportado su visión, tanto on-line a través de cuestionarios, como off-line a través de consultas populares, buzones colocados en lugares transitados. Por internet se han rellenado 105 cuestionarios y otros 191 se han aportado en papel. Un 70% de ellos han sido cumplimentados por mujeres.

En la fase actual se va a definir la misión, la visión y los valores para después marcar los objetivos y las acciones a llevar a cabo para lograrlos. El documento final se entregará en junio de 2025.

## Antsoainek 5.000 euro eman dizkio Palestinako ospitale bati / Ansoáin destina 5.000 euros a un hospital palestino

■ Ekitate, Osasun Komunitario eta Gizarte Ekintza Batzordeak aho batez erabakirik, 5.000 euro bideratu dira Palestinara "Y os lo cuento" GKEren bidez, Aurrekontuetako Larrialdiak partidaren kontura. Diruarekin elektrokardiograma bat eta hortz-unitate bat erosiko dira Belengo Beit Sahour ospitalera bidaltzeko. Edonork eta edozein erakundek ere egin diezairoke ekarpena proiektuari, dela ES57 3035 0058 3505 80106673 banku-kontuaren bidez, dela Bizumen bidez, 03284 kodea satukatzuz.



■ La Comisión de Equidad, Salud Comunitaria y Acción Social ha aprobado por unanimidad destinar los 5.000 euros de la partida de Emergencias de los Presupuestos a ayudar a Palestina a través de la ONG "Y os lo cuento". El dinero se destinará a la compra de un electrocardiograma y una unidad dental para el hospital Beit Sahour de Belén. Cualquier persona o entidad que quiera contribuir al proyecto, puede realizar sus aportaciones en el número de cuenta ES57 3035 0058 3505 80106673 o a través de Bizum con el código 03284.

## Antsoain, administrazio elektronikoan eredugarri, asturiarren iritziz / Ansoáin, ejemplo de administración electrónica para Asturias



■ Asturiasko Teknologia Zerbitzuetako Partzuergoko hainbat kide Antsoaingo Udala bisitatzera etorri ziren joan den urriaren 9an, ANIMSA-Nafarroako Udal Informatikako Sozietateko profesionalak lagundurik, azken enpresa hori Antsoaingo eta beste toki entitate batzuetako kudeaketa informatikoaz arduratzen baita.

Udaletxean, Ainara Armendariz udal idazkariarekin eta Arantxa Antoñana Herritarren Arretarako Bulegoko ardura-dunarekin bildu ziren, gure herrian Sedipulb@ plataformaren ezarpenean eta erabileran dagoen esperientzia ezagutzeko. Antsoain aitzindaria izan baita administrazio elektronikorako plataforma horren erabileran, eta orain Asturiasen ezarri nahi dute. Albaceteko Diputazioak sorturik, plataformak tokiko tramiteen kudeaketa hobetu eta herritarrengana hurbildu nahi du.

■ Una delegación del Consorcio Asturiano de Servicios Tecnológicos (CAST) visitó el Ayuntamiento de Ansoáin el pasado 9 de octubre acompañado por profesionales de la Asociación Navarra de Informática Municipal (ANIMSA), que se encarga de la gestión informática de Ansoáin y de otras entidades locales.

En el Consistorio se reunieron con Ainara Armendariz, secretaria municipal, y Arantxa Antoñana, responsable de la Oficina de Atención Ciudadana, para conocer de primera mano su experiencia en la implantación y uso de Sedipulb@, una plataforma de administración electrónica en cuyo uso Ansoáin ha sido pionera en Navarra y que el CAST pretende implantar en Asturias. Creada por la Diputación de Albacete, esta plataforma tiene como objetivo mejorar y acercar la gestión de los trámites locales a la ciudadanía.

## Antsoainek bat egin du Ezkaba mendia garbitzeko auzolanarekin / Ansoáin se suma a la jornada de limpieza del monte Ezkaba

■ 160 lagun aritu ziren Ezkaba mendia garbitzeko auzolanean, joan den azaroaren 3an, Iruñerriko Mankomunitateak antolaturik. Haien artean, Antsoaingo talde bat. Antolatzaileek zabor-poltsak, eskularruak, pintzak eta txalekoak banatu zituzten mendira sartzeko lekuetan, hau da, Berriogoitin, Aitzoainen, Berriozarren, Artikan, Antsoainen, Iruñean, Atarrabian, Arren eta Azotzen.

Antsoaingo taldea goizeko 10:30ean herri zaharreen elkartu, handik abiatu eta seinaleak berrikusten eta inguruko zaborrak biltzen aritu ziren. Zabor guztiak, gero, Iruñerriko Mankomunitateak mendi gailurrean paratutako 9 edukiontzietara eraman ziren.

Pare bat orduz garbiketean aritu ondoren, kaskoan hamaiketako egin, Ezkaba Parkearen proiektua zertan den azaldu eta talde argazkia egin zen.



■ Un total de 160 personas, entre ellas un grupo de vecinos y vecinas de Ansoáin, se sumaron el pasado 3 de noviembre al auzolan organizado por la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona para limpiar el monte Ezkaba. La organización se encargó de proporcionar bolsas de basura, guantes, pinzas y chalecos en los distintos puntos de acceso señalados en Berriozarren, Aitzoáin, Berriozar, Artica, Ansoáin, Pamplona, Villava, Arre y Azoz.

El grupo de Ansoáin se reunió a las 10:30 horas en el aparcamiento del pueblo viejo y desde allí partió para revisar las señales y recoger los restos de basura abandonados en la zona. Los residuos recogidos se depositaron en los 9 contenedores colocados por la MCP en la cima del monte.

Tras las labores de limpieza durante algo más de dos horas, hubo un almuerzo en la cima, donde se explicó la situación del proyecto de Parque Ezkaba y se realizó una foto de familia.



## Hiri kontribuzioa eta tasak eguneratu dira

### Actualización de la contribución urbana y las tasas

**O**soko bilkurak onetsirik, zergak eta tasak eguneratu dira 2025erako, hiri kontribuzioa % 8 igoz, eta tasa nahiz prezio publikoak, berriz, % 5. Izan ere, zerga-arauak berriz ere indarrean sartu dira eta, ondorioz, defizitari muga jarri behar zaio; horrek presioa eragin du udal diru-sarreraren gainean, eta udalerriko egoera ekonomikoa eta soziala ziurtatu beharra dago.

Azken legegaldian, Udalak herritarrei laguntzeko politika lehenetsi zuen, pandemiak eta energia garestitu izanak eragindako krisiei aurre egin nahirik. Hori dela eta, hiru urtez jarraian (2021-2023) ez zen igoerarik izan udal tasa eta zergetan. Aldi berean, familia ugarietara, gurasobakarrei eta ostalaritza establezimenduetara salbuespenak eta hobariak ezarri zitzaizkien. Orain, berriz, tasak eta zergak igo dira, udalaren diru-sarrerak sendotu behar direlako, zerbitzu publikoen kalitatea eta jarraipena ziurtatzeko aldera eta funtsezko inbertsioak egite aldera, hala nola inbertsio garrantzitsuak kirol instalazioetan, hiri altzarrietan eta hobekuntza energetikoetan.

Udalari buruzko azterlan finantzarioak dakarren bezalaxe, gastu sabaia igoko bada, zergak, tasak edo prezio publikoak eguneratu behar dira, egitura sozioekonomikoak berak diru-sarrerak nabarmen baldintzatzen dituelako. Izan ere, gure udalerririk ez du parke industrial handirik eta ez da gauzatu gabeko hirigintza garapenik.

Udalak % 8 igoko du kontribuzioa. Bitarte baterako neurria da, 2026an balorazio-txostena eguneratzea aurreikusia dagoelako, hau da, jabetzen balioa higiezinaren egungo merkatuak dituen baldintzen eta ezaugarrien arabera doitu da.

Igoera horrek eraginda, adibidez, Harrobi kalean 85.224,06 euroko katastro-balioa duen etxebizitza batek 20 euroko igoera izanen du urtean. Taularen beste muturrean, Sakanpea kaleko familiabakar baten kontribuzioa 37,31 euroan igoko da urtean. Kontribuzioak nola halako ikuspegi progresiboa dauka, katastro-balio handieneko etxebizitzek gehiago ordaintzen dutelako. Gainera, familia ugariendako eta gurasobakarrendako hobariak mantenduko dira, bai eta sektore ahulenendako berariazko laguntzak ere.

#### Tasak eta prezio publikoak

Tasak eta prezio publikoak (2000z geroztik, izoztuak) % 5 igoko dira, hots, azken urteetan kontsumorako prezioen indizea (KPI) igo dena (% 18) baino askoz ere gutxiago.

Eguneratu dira, adibidez, ibiak edo pasabideak (2 euro, m lineal bakoitzeko), terrazak (2 euro m-ko), lizentziak (29 euro), zangak (2,6 euro metroko) edo ezkontzak (5 euro).

Zergak eta tasak eguneratu dira udalerraren egonkortasuna eta finantzen oreka bermatzeko, azken urteotan ezarri diren politika sozial eta komunitarioei jarraipena emate aldera.

**E**l Pleno municipal ha aprobado la actualización de impuestos y tasas para el año 2025, con una subida del 8% en la contribución urbana y un aumento del 5% en tasas y precios públicos. Esta medida se adopta en un contexto de reactivación de las reglas fiscales que limitan el déficit, presión sobre los ingresos municipales y la necesidad de asegurar la sostenibilidad económica y social del municipio.

Durante la última legislatura el Ayuntamiento priorizó el apoyo a la ciudadanía frente a crisis como la pandemia y el encarecimiento energético, manteniendo congeladas las tasas e impuestos durante tres años consecutivos (2021-2023) y aplicando exenciones y bonificaciones para familias numerosas, monoparentales y establecimientos hosteleros. El aumento de las tasas e impuestos responde a la necesidad de reforzar los ingresos municipales para asegurar la calidad y continuidad de los servicios públicos y afrontar inversiones esenciales, tales como importantes inversiones en instalaciones deportivas, mobiliario urbano y mejoras energéticas.

Tal y como refleja el estudio financiero municipal, elevar el techo de gasto pasa por actualizar impuestos, tasas o precios públicos, ya que los ingresos están muy condicionados por su propia estructura socioeconómica. El municipio no cuenta con grandes parques industriales, ni desarrollos urbanísticos pendientes.

El Ayuntamiento aplicará una subida del 8% en la contribución,

una medida transitoria, ya que, en 2026 está prevista la actualización de la ponencia de valoración, que ajustará el valor de las propiedades en función de las condiciones y características actuales del mercado inmobiliario.

Este incremento implica que, por ejemplo, una vivienda en la calle Canteras con un valor catastral de 85.224,06 euros tendrá un aumento de 20 euros al año. En el otro extremo de la tabla, un unifamiliar en la calle Sakanpea verá incrementada su contribución en 37,31 euros anuales.

La contribución tiene cierto enfoque progresivo, puesto que las viviendas con mayor valor catastral aportan más. Además, se mantendrán las bonificaciones para familias numerosas y monoparentales, así como las ayudas específicas para los sectores más vulnerables.

#### Tasas y precios públicos

Las tasas y precios públicos, congeladas desde 2020, se incrementarán en un 5%, un porcentaje muy inferior a la subida del IPC en los últimos ejercicios (18%).

Por ejemplo, se actualizan los vados (2 euros/m lineal), terrazas (2 euros/m), licencias (29 euros), zanjias (2,6 euros/m) o las bodas (5 euros).

La actualización de impuestos y tasas pretende garantizar la estabilidad y sostenibilidad financiera del municipio, permitiendo continuar con las políticas sociales y comunitarias que se han implementado en los últimos años.

## Herriko merkataritzan abenduan erosteak saria dakar

### Comprar en el comercio local en diciembre tiene premio

**A**ntsoaingo Udalak beste kanpaina bat abiaraziko du tokiko kontsumoa sustatzeko, gure herriko saltokiek, dendek, zerbitzuek eta ostalaritza establezimenduek lagundurik. Ekimena abenduaren 9tik aitzina garatuko da, "Ansoáin te une / Antsoainek elkartzen zaitu" leloa goiburutzat hartuta.

Batetik, bideoak grabatu dira euskaraz eta gaztelaniaz herriko 20 establezimendutan, herritarrek ohartu daitezen zer-nolako abantailak dituen herrian bertan kontsumitzeak bai pertsona bakoitzarendako, bai gure herriko bizitzarako. Bideoklipak sare sozialen eta udal webaren bidez hedatuko dira.

#### 5.000 sari

Bestetik, abenduaren 9tik aurrera, herriko establezimenduetan erosten duenari txartelak emanen zaizkio, eta txartelatan deskontuak, zuzeneko sariak eta produktuen nahiz zerbitzuen zozketak izanen dira, guztiak ere herriko merkataritzak eta udaleko Kirol eta Kultura zerbitzuek emanak. Kanpaina 15.000 txartelak agortzen direnean bukatuko da.

**E**l Ayuntamiento de Ansoáin va a poner en marcha una nueva campaña para fomentar el consumo local con la colaboración de los comercios, servicios y establecimientos hosteleros del municipio. La iniciativa se desarrollará a partir del 9 de diciembre y tendrá como lema "Ansoáin te une / Antsoainek elkartzen zaitu".

Por una parte, se han grabado videos en castellano y euskera en 20 establecimientos de la localidad con el fin de concienciar a la población sobre las ventajas que tiene consumir en el municipio para cada persona y para la vida del propio pueblo. Estos videoclips se difundirán a través de las redes sociales y la web municipal.

#### 5.000 premios

Por otra parte, a partir del 9 de diciembre quien compre en un establecimiento local recibirá boletos que contendrán descuentos, premios directos y sorteos de productos y servicios facilitados por el tejido comercial local y por los servicios municipales de Deportes y Cultura. La campaña concluirá cuando se agoten los 15.000 boletos.

## Hobekuntzak Larrazko kaleko txakur eremuan / Mejoras en la zona de esparcimiento canino de la calle Larrazko

■ Irail eta urrian, Udalak hainbat lan egin ditu Larrazko karrikako txakur eremuan, inguru atseginagoa izateko bai maskotentzat, bai maskotak pasearazten dituztenentzat.

Batetik, hainbat tramankulu paratu dira txakurrek jauzi egin dezaten, haien entretenigarri. Mader Play enpresa arduratu da 9.560 euroan, eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza baten bidez ordainduko da. Bestetik, 'agility' zirkuitua paratzearekin batera, bestelako lanak ere egin dira, guztiak udal bitartekoak erabiliz. Horrela, argiak hobetzeaz gain, iturriko ura behar bezala bideratu da putzurik ez sortzeko eta, hemendik gutxira, markesina bat ezarriko da.



■ Durante los meses de septiembre y octubre, el Ayuntamiento ha llevado a cabo varias actuaciones en la zona de esparcimiento canino de la calle Larrazko con el fin de hacerla más amable para las mascotas y quienes las pasean.

Por una parte, se han colocado varios elementos para que los perros puedan saltar y entretenerse. La intervención ha sido realizada por Mader Play con un coste de 9.560 euros, financiados a través de una subvención de Gobierno de Navarra. Por otra parte, se ha aprovechado la colocación de ese circuito de 'agility' para realizar también otras actuaciones con medios municipales. En concreto, se ha mejorado la iluminación, se ha direccionado el agua de la fuente para tratar de evitar encharcamientos y próximamente se va a colocar una marquesina.



**TALLERES  
PAMPLONA**

Hermanos Noáin, 58 · Ansoáin · T 848 411 434  
www.tallerespamplona.com

Reparación de carrocería y pintura  
Averías mecánicas y eléctricas  
Mantenimiento de todas las marcas  
10 Coches de sustitución  
Amplio horario continuo de lunes a viernes, de 8:30 a 19:00 h  
Descuentos en mantenimiento, franquicias y por ser cliente habitual

## Abian da jantoki komunitarioko proiektu pilotua

### Se pone en marcha el proyecto piloto de comedor comunitario

51 lagun ari dira, 40 Ostoki Zentroko jantokian eta 11 beren etxeetan

Participan en el mismo 51 personas, 40 en el comedor del Centro Ostoki y 11 en sus domicilios

Jantokia joan den urriaren 7an zabaldu zen, Antsoaingo Udalak bultzaturik, "Antsoain, zaintzen duen herria" programaren baitan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak lagundurik. Jantoki komunitario eta osasungarria da. Guztira, 51 lagun ari dira proiektu pilotuan: haieriko 40 Ostoki Eguneko Zentro Komunitarioan moldatu den jantokira doaz, eta beste 11k, berriz, janaria etxean bertan jasotzen dute. Proiektuak bi lan estrategia ditu: soziala eta elikadura arlokoa. Estrategia sozialak zaintza eta sozializazio sareak bermatu eta bultzatzen ditu, aldi berean Antsoaingo bizilagunen autonomia eta parte-hartzea landuta. Elikadura arloko estrategiak, berriz, elikadura osasungarri eta jasangarria bermatzen die zerbitzua erabiltzen dutenei.

Janaria Ezkaba Ikas-tetxe Publikoko sukaldeetan prestatzen da,

hots, lehen eta bigarren platera, postrea, ogia eta ura. Osasungarria eta jasangarria da eta, ahal den neurrian, kontuan hartzen da elikagaiek 5 irizpide bete behar dituztela. Honatx: ekologikoak, tokikoak, freskoak eta garaiaren garaikoak izan behar dute, bai eta ekoizleek zuzenean ekarritakoak ere. Era horretako lehen proiektua da Nafarroan, aitzindaria, zerbitzua astero emanda, hots, astelehenetik ostiralera, abenduaren 20ra arte, eta zerbitzua era jarraituan emateko aukera ebaluatzeko parada emanen du. Orain doakoa bada ere, probaldian etorkizuneko prezioa zehaztuko da, kostuak zein diren kontuan hartuta. Halaber, ikusiko da zein izan daitekeen eskaria eta zer baliabide jar ditzakeen Udalak haren eskura.

Jantokia zabaldu zenetik hainbat aste joan diren honetan, erabiltzaileak oso pozik daude.



El pasado 7 de octubre comenzó a funcionar el comedor comunitario y saludable para personas mayores y/o con discapacidad impulsado por el Ayuntamiento de Ansoáin en el marco del programa "Ansoáin, comunidad que cuida", con la colaboración de la Mancomunidad de Servicios Sociales de Base.

En total son 51 las personas que participan en este proyecto piloto: 40 de ellas acuden al comedor habilitado en el Centro Diurno Comunitario Ostoki y otras 11 reciben la comida en sus hogares.

El proyecto tiene dos estrategias de trabajo: la social y la alimentaria. La estrategia social garantiza e impulsa redes de cuidados y socialización y trabaja la autonomía y participación de los y las vecinas de Ansoáin, mientras que la estrategia alimentaria garantiza una alimentación saludable y sostenible a las personas usuarias.

El menú se elabora en las cocinas del Colegio

Público Ezkaba y consiste en primer y segundo plato, postre, pan y agua. Es saludable y sostenible y tiene en cuenta, siempre que sea posible, que los alimentos cumplan 5 criterios: que sean ecológicos, locales, frescos, de temporada y abastecidos directamente por las personas productoras.

El proyecto piloto, pionero en Navarra, se desarrollará todas las semanas de lunes a viernes hasta el 20 de diciembre y permitirá evaluar la posibilidad de instaurar este servicio de manera continua. Aunque ahora es gratuito, durante el periodo de prueba, y en base a los costes, se determinará su precio en el futuro. También se observará la demanda potencial y se evaluarán los recursos que el Ayuntamiento puede poner a su disposición.

Tras varias semanas de funcionamiento, las valoraciones de las personas usuarias son muy positivas.



## Erabiltzaileen iritzia

### La opinión de las personas usuarias

Conchi González Cuesta. 82 urte ditu eta, batez ere, konpainia hartzen du aintzat: "Bakarrik nago eta aunitz eskertzen dut elkarrekin bazkaltzea. Pertsona bakoitzak bere tokia du, baina astean behin, aldatzen gara eta, horrela, batzuekin eta besteekin egoten zara. Espero dut zerbitzua ez kentzea".



Conchi González Cuesta, de 82 años, aprecia sobre todo la compañía: "Estoy sola y agradezco mucho comer acompañada. Cada persona tiene su sitio, pero un día a la semana cambiamos y eso nos permite estar con gente diferente. Espero que no me lo quiten".

Agustina Ochoa González (79 urte). Osasun arazoek bultzaturik eman du izena jantokian senararekin batera: "Nekosoa zitzaidan bai erosketa egitea, bai janaria prestatzea, hezur arazoak ditudalako; beraz, zerbitzu ezin hobea da guretako. Menuak, gainera, era askotakoak dira, orekatuak, eta oso goxoak daude".



A Agustina Ochoa González (79 años), fueron los problemas de salud los que le hicieron inscribirse en el comedor junto a su marido: "Hacer la compra y la comida se me hacía duro porque tengo problemas de huesos, así que este servicio es ideal para nosotros. Además, los menús son variados, equilibrados y están ricos".

Julio Luna García (77 urte) ere ez du akatsik ikusten, pozik baitago bai bazkariarekin, bai zerbitzuarekin. "Arazo bakarra atzeman diot, proba hutsa da. Pentsatzen dut zerbitzuak eskari handia izanen duela eta, agian, ezin izanen da mantendu. Ni prest nago ordaintzeko, zerbitzuarekin poz-pez nabilelako", ziurtatu digu.



Julio Luna García (77 años) tampoco le pone ningún 'pero' al comedor, ya que está contento tanto con la comida como con el servicio. "El único problema que le veo es que es una prueba. Supongo que habrá mucha demanda del servicio y quizá no se pueda atender. En mi caso estoy dispuesto a pagar porque estoy encantado con el servicio", asegura.

Iritzi berekoa da Juana Amóstegui Puente (81 urte): "Ongi gisatua dago eta egunero gauza ezberdina zerbitzatzen digute. Etxean, ni bezala bakarrik bizi zarenean, errazagoa da gauzak errepikatzea edota antolaketa hain ongi ez egitea".



De la misma opinión es Juana Amóstegui Puente (81 años): "Está bien guisado y cada día nos sirven una cosa distinta. Aquí es más fácil comer variado. En casa, cuando vives sola como yo, es más fácil repetirse o llevar menos organización".

## Eskutik familiendako tailer programa, abian / En marcha el programa de talleres para familias Eskutik

Udalak, hainbat guraso elkarterekin, zenbait udal zerbitzuekin eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin elkarlanean, ikastaro bat jarri du abian, bai eta "Eskutik" familiendako tailer programa ere. Lehen saioa joan den urriaren 9an egin zen, 19 lagun bildurik, Pili Miqueo dinamizatzaileak emanik. Parte-hartzaileek gogoetagai izan zuten zer ikuspegi, jarrera eta trebetasun izan behar diren nerabeekiko komunikazioa sustatzeko eta elkarrenganako errespetua sustatzeko.

Azaroaren 12an, Miren Orozko gizarte langileak tailer bat eman zuen euskaraz, indarkeria matxista eta sexistari etxean nola aurre hartu jakiteko, bai eta familiek seme-alabei haurtzaroan berdintasunaren inguruan irakasten dizkieten rol eta ereduez ere.



El Ayuntamiento, en colaboración con diferentes apymas, servicios municipales y la Mancomunidad de Servicios Sociales ha puesto en marcha un curso más el programa de talleres para familias Eskutik. La primera sesión tuvo lugar el 9 de octubre, reunió a 19 personas y corrió a cargo de la dinamizadora Pili Miqueo. Las y los participantes reflexionaron sobre el enfoque, actitudes y habilidades que deben adoptarse para favorecer la comunicación con las y los adolescentes y promover el respeto mutuo.

El 12 de noviembre, la trabajadora social Miren Orozko impartió un taller en euskera sobre la prevención de la violencia machista y sexista en casa y sobre los roles y modelos en torno a la igualdad que las familias transmiten a sus hijos e hijas durante la infancia.

## Genero eta hezkidetzeta tailerra Ezkaba ikastetxean

### Taller de género y coeducación en el Colegio Ezkaba

Urriaren bigarren hamabostaldian, Ezkaba ikastetxeko lehen hezkuntzako 4. mailako ikasleek “Genero eta hezkidetzeta” tailerrean parte hartu dute, Iñigo Aranbarri aktorearen eskutik. Proiektuak halako espazio bat sortu nahi du, ikasleek beren kezkek adieraz ditzaten egungo gaiez, jolasaren, antzezpeneren eta ikus-entzunezko mezuen bidez, hala nola zaintzez, aukera berdintasunaz, genero indarkeriaz eta desberdinkeriez; eta halaber, ikusi nahi dute zer eginkizun betetzen dituzten genero

arauek, hau da, ikasleek berek ikasiak eta barneratuak dituzten genero arauak.

Helburu nagusia da ikasleak ohartu daitezela kulturak gizartean duen eraginaz, hau da, beren bizitzan ikasitako guztia zalantzan jartzen lagundu nahi zaie (sexuaren araberako estereotipoak eta rolak), konturatu daitezen jasotzen dugun informazio askok mugatu egiten gaituela erabakiak hartzerakoan, horretaz jakitun ez izan arren.



Durante la segunda quincena de octubre el alumnado de 4º de Primaria del Colegio Ezkaba ha tenido la oportunidad de participar en el taller “Género y coeducación” impartido por el actor Iñigo Aranbarri. El proyecto pretende crear un espacio en el que el alumnado, a través del juego, la dramatización y los mensajes audiovisuales, pueda expresar sus preocupaciones e inquietudes sobre temas tan actuales como los cuidados, la igualdad de oportunidades, la violencia de género y las desigualdades, y comprobar qué papel desem-

peñan las normas de género que ellos y ellas mismos/as tienen aprendidas e interiorizadas.

El objetivo principal es contribuir a que el alumnado tome conciencia de la influencia que la cultura tiene sobre la sociedad, es decir, ayudarles a plantearse dudas sobre todo lo aprendido durante su vida (estereotipos y roles en función del sexo), para que sean conscientes de que gran parte de la información que recibimos nos limita a la hora de tomar decisiones, aunque no seamos conscientes de ello.

### Antzerkia Ochoa de Olza institutuan sexu indarkeriak prebenitzeko / Teatro en el Instituto Ochoa de Olza para prevenir las violencias sexuales

■ Ochoa de Olza institutuko DHBko 4. mailako ikasleak tailer batean aritu dira azaroan, Berdintasun Zerbitzuak antolatuz, desioaz, pornoaz eta sexu indarkerien prebentzioaz mintzatzeko. Hainbat antzezpeneren bidez, Iñigo Aranbarri aktoreak ohartarazi die zeinen arriskutsua den sexualitatea eta pornografia lotzea, horrelako edukiek emakumeen rolari buruzko ikuspegi desitxuratua eragiten dutelako eta bortxazko jarrerak normaltzen dituztelako. “Binomioa” izenburupean, tailerra azaroaren 4an eman zen gaztelaniako taldeentzat eta, azaroaren 5ean eta 6an, euskarazkoentzat.

■ El alumnado de 4º de ESO del Instituto Ochoa de Olza participó en noviembre en un taller sobre deseo, porno y prevención de violencias sexuales organizado por el Servicio de Igualdad. A través de distintas representaciones teatrales, el actor Iñigo Aranbarri trató de sensibilizar del peligro y de los riesgos de asociar sexualidad y pornografía, ya que este tipo de contenidos promueven una percepción distorsionada del rol de las mujeres en las relaciones y una normalización de las actitudes violentas. El taller, titulado “Binomio”, se impartió el día 4 de noviembre para los grupos de castellano, y el 5 y 6 de noviembre para los de euskera.



## Antsoain, A-25eko kanpainan partaide

### Ansoáin participa en la campaña con motivo del 25-N

**B**este behin ere, Antsoaingo Udalak Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Egunaren kanpaina instituzionalean parte hartu du, Nafarroako Berdintasun Teknikarien Sareak prestaturik. Urtero izaten da eguna, azaroaren 25ean, alegia. Kanpainak, aurten, indarkeria bikarioan jarri du arreta, hau da, indarkeria motarik hondagarrien eta krudelenetakoa batean. Matxismoaren muturreko adierazpena da, emakumeei egiten dielako eraso haien pertsona maiteen bitartez; emakumeen seme-alaben bitartez, bereziki. Erasotzaileek seme-alabak baliatzen dituzte emakumeari ahalik eta kalte emozionalik handiena eragiteko. Indarkeria mota horrek aztarna mingarri eza-baezina uzten du hori pairatzen dutenengan eta, askotan, haurren heriotza eragin dezake. Are gehiago, indarkeria bikarioan gizartea da konplize, emakumeak etengabe zalantzan jartzen dituen gizartea, autoritatea kentzen baitie, haien hitza zalantzan jarrita. Hori dela eta, leloak halaxe dio: “Ez da antzerkia, indarkeria bikarioa da”.

Ezinbestekoa da erakunde publikoon politikak eta baliabideak indartzen jarraitzea indarkeria matxista mota guztiei aurre egiteko, baita ikusezine-nei ere, hau da, indarkeria bi-



**E**l Ayuntamiento de Ansoáin participa un año más en la campaña institucional del Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres elaborada desde la Red de Técnicas de Igualdad de Navarra, que se celebra cada año el 25 de noviembre.

La campaña pone este año el foco en una de las formas más devastadoras y crueles: la violencia vicaria. Se trata de una manifestación extrema del machismo, porque ataca a las mujeres a través de sus seres queridos, especialmente, sus hijas e hijos. Los agresores las y los utilizan como instrumento para infligir el mayor daño emocional posible. Este tipo de violencia deja una huella imborrable en quienes la sufren y, en muchos casos, acaba con la vida de las niñas y niños. Es más, la violencia vicaria cuenta con la complicidad de una sociedad que cuestiona permanentemente a las mujeres, que las priva de autoridad y pone en duda su palabra. Es por ello que el lema alude a “No es teatro, es violencia vicaria”.

Es necesario que las entidades públicas sigamos fortaleciendo nuestras políticas y recursos para combatir todas las formas de violencias machistas, incluidas las más invisibilizadas, como es la violencia vicaria, la psicológica o la manipulación

karioari, psikologikoari edo manipulazioari zein indarkeria instituzionalari. Hori dela eta, indarkeria bikarioari buruzko berariazko sentsibilizazio kanpainak sustatzeko konpromisoa hartu dugu Antsoainen, indarkeria mota hori ikusarazteko, eta konpromisoa ere, toki eta lurralde entitateetan lan egiten duten profesionalen prestakuntza indartzeko, babes integraleko neurriak bultzatzeko (bai emakumeentzako, bai haien seme-alabentzako), indarkeria bikarioaren aurrean erantzun azkar, koordinatua eta eraginkorra bermatzeko, eta tokiko berdintasun politiketan indarkeria bikarioaren ikuspegia txertatzeko.

#### Antsoaingo jarduerak

Aipatu kanpainaren barnean, Udalak hainbat jarduera antolatu zituen azaro osorako. Lehena hilaren 8an egin zen, zine-forum saioa. Gero, hilaren 12an, euskarazko saio bat egin zen indarkeria matxista eta sexualaren prebentzioa etxean nola landu ikasteko.

Hilaren 16an, Antsoaingo antzokian, “Anselma y Luisa” lana taularatu zen; 22an, “Calladitas estáis más guapas” eta, 30ean, “Baginaren bakarrizketak”. Horrez gain, kale bilkura egin zen azaroaren 25ean, eguerdian, udaletxearen kanpoaldean.

ya la violencia institucional. Por todo ello, en Ansoáin nos comprometemos a promover campañas de sensibilización específicas sobre la violencia

vicaria, a reforzar la formación de los y las profesionales que trabajan en el ámbito local y territorial, a impulsar medidas de protección integral para las mujeres y sus hijas e hijos, a coordinar acciones para asegurar una respuesta ágil, coordinada y efectiva ante situaciones de violencia vicaria, y a incorporar la perspectiva de la violencia vicaria en las políticas de igualdad locales.

#### Actividades en Ansoáin

Dentro de la citada campaña, el Ayuntamiento organizó durante todo el mes de noviembre diversas actividades. La programación arrancó el día 8 con una sesión de cineforum. El día 12 se ofreció una sesión en euskera para abordar la prevención de la violencia machista y sexual en casa, el día 16 el teatro de Ansoáin acogió la obra “Anselma y Luisa”, el día 22 “Calladitas estáis más guapas” y el día 30 “Baginaren bakarrizketak”. Además, se llevó a cabo una concentración el día 25 al mediodía en el exterior de la Casa Consistorial.

## Antsoainek udalerriko LGTBI+ diagnostikoa aurkeztu du / Ansoáin presenta el diagnóstico LGTBI+ del municipio

Udalak LGTBI+ diagnostikoa aurkeztu berri du (azaroak 14), gure herrian 500 pertsonaren artean inkestean, elkarrizketen eta tailerren bidez egindakoa, herritarrek Antsoaingo sexu eta genero dibertsitateaz dituzten esperientziak, iritziak eta pertzepzioak biltzeko. Ekitaldian, 35 lagun bildu ziren Antsoaingo Antzokian. Hantxe izan ziren, besteak beste, Marta Diez Napal alkatea eta Berdintasun Alorraren arduraduna, Laura Molina Azanza LGTBI+ alorraren arduraduna, Andrea Guiñón Elizari udaleko berdintasun teknikaria, eta "Ansoainen Harro" taldearen ordezkariak. Diagnostikoa Zeharka eta Nommad aholkularitza enpresek egin dute, eta biek ere edukia zehatz-mehatz aurkeztu zuten, hau da, emaitza nagusiak, beharrak, bai eta abian jarriko den ekintza

planaren ardatzak ere. Diagnostikoaren arabera, Antsoaingo LGTBI+ pertsonen % 80k nola halako bazterkeria edo jazarpena pairatu dute espazio publikoetan, beren bizitzan zehar. Dibertsitatearen aldeko jarrera ikusten bada ere (gazte eta emakumeen artean, bereziki), oraindik ere hein handia dirau belaunaldi arteko arrakalak sentsibilizazioari dagokionez. Herritarren % 44ren iritzi, gainera, oraindik ere ez zaio behar bezalako ikusgaitasunik eman LGTBI+ jendeari ekitaldi eta espazio publikoetan, eta udalak azken alderdi hori indartu nahiko luke. Era berean, leku seguruak eta laguntza tokiak sortzeko premia atzeman da, bai eta pertsona guztien erosotasuna eta segurtasuna bermatuko dituzten instalazioak edukitzeko beharra ere.



El Ayuntamiento de Ansoáin presentó el 14 de noviembre el diagnóstico LGTBI+ que la localidad ha realizado entre 500 personas a través de encuestas, entrevistas y talleres para recoger las experiencias, opiniones y percepciones de la ciudadanía sobre la diversidad sexual y de género en Ansoáin. El acto reunió a 35 personas en el Teatro de Ansoáin y contó con la participación de la alcaldesa y responsable del Área de Igualdad Marta Diez Napal, la concejala responsable del Área LGTBI+ Laura Molina Azanza, la técnica municipal de Igualdad, Andrea Guiñón Elizari, y representantes del colectivo "Ansoainen Harro". Las consultoras Zeharka y Nommad, encargadas de realizar el diagnóstico, presentaron los principales resultados y necesidades

identificadas y los ejes del plan de acción que se pondrá en marcha. El diagnóstico revela que un 80% de las personas LGTBI+ en Ansoáin ha sufrido alguna forma de discriminación o acoso en espacios públicos a lo largo de su vida. Aunque se aprecia una actitud favorable hacia la diversidad, especialmente entre jóvenes y mujeres, persiste una brecha generacional en la sensibilización. Además, un 44% de la ciudadanía considera que aún falta visibilidad de la comunidad LGTBI+ en los eventos y espacios públicos, un aspecto que el municipio prevé reforzar. Asimismo, se ha detectado una necesidad urgente de crear espacios seguros y de apoyo específicos y de contar con instalaciones que contribuyan a la comodidad y seguridad de todas las personas.

### Klimaterioa eta menopausia mintzagai abenduko tailer batean

### Taller sobre climaterio y menopausia en diciembre

Berdintasun Zerbitzuak klimaterioari eta menopausiari buruzko beste tailer bat antolatuko du abenduaren 9an eta 16an, aurreko tailerrean tokirik gabe gelditu ziren emakumeendako. Irailkoan bezala, María Muñoz Cobo mintzatuko da, menopausian aditua eta hezitzaile afektibo-sexuala. Guztira, 20 leku eskainiko dira. Tailerrean, besteak beste, honakoak izanen dituzte hizpide: hormonon funtzionamendua, menopausiaren etapak, eta emakumeek une horietan izan ditzaketen oztipoak eta laguntzak.

Izen-emateak / Incripciones



El Servicio de Igualdad ha organizado los días 9 y 16 de diciembre un nuevo taller sobre climaterio y menopausia para aquellas mujeres que se quedaron sin plaza en el anterior. Al igual que el realizado en septiembre, correrá a cargo de la experta en menopausia y educadora afectivo sexual María Muñoz Cobo y se ofertan un total de 20 plazas. En el taller se tratarán aspectos como el funcionamiento de las hormonas, las etapas de la menopausia y los obstáculos y apoyos que pueden encontrar las mujeres en esos momentos, entre otros.



## Azaroa, euskal kulturaren agertokia Antsoainen

### Noviembre es sinónimo de cultura euskaldun en Ansoáin

‘Kultu Aroa’ zikloan hamaika ekitaldi egin dira jende guztiarentzat

El programa ‘Kultu Aroa’ incluyó once actividades para todos los públicos

**K**ultur Aroa’ euskarazko kultur zikloaren aurtengo edizioa egin berri da azaroan, Ansoaingo hainbat leku antzerkiz, magia, umorez, literaturaz eta bestelako jardueraz beteta. Guztira, hamaika jarduera eskaini dira, adin guztietako antsoaindarren gozagarri. Ekitaldien artean nabarmentzekoak izan dira segurtasun digitalari buruzko tailerra, magia ikuskizuna, ihes-gela saioa, “Printze Txikia” libururen talde irakurketa, Euskalerrria Irratiko irratsaio baten zuzeneko emankizuna, jolas eta jostailuei buruzko erakusketa gidatua, Jon Maia bertsolari eta musikariarekin egindako hitzaldia, Santi Leoné idazlearekin egindako literatur solasaldia, eta “Baginaren bakarriketak” antzezlanaren antzezpina gazte eta helduentzat.



**E**l pasado mes de noviembre se celebró una nueva edición del ciclo cultural en euskera ‘Kultur Aroa’, que llenó varios espacios de Ansoáin de teatro, magia, humor, literatura y otras actividades.

Las y los vecinos de Ansoáin, sin importar la edad, han podido disfrutar de once actividades culturales diferentes. Entre la programación han destacado un taller sobre seguridad digital, un espectáculo de magia, una sesión de escape room, la lectura colectiva de “El Principito”, la retransmisión en directo de un programa de la emisora Euskalerrria Irratia, una exposición guiada de juegos y juguetes, una charla con el bertsolari y músico Jon Maia, un coloquio literario con el escritor Santi Leoné y la representación de la obra de teatro “Baginaren bakarriketak” para personas jóvenes y adultas.



### Euskarazko tailerrak haurrentzat Eguberrietan / Talleres infantiles en euskera en Navidad

■ Eguberriko oporretan, Ansoaingo haurrek tailerrak izanen dituzte eskura, Euskara Zerbitzuak Dindaiaren eskutik antolatuta. Zehazki, 3 - 8 urteko haurrentzat izanen dira, hau da, Haur Hezkuntzako 1. mailatik Lehen Hezkuntzako 3. mailara bitarte ari direnentzat. Eguneko kanpaldiak izanen dira, 10:00etatik 13:00etara, bi txandatan banatuta: batetik, abenduak 24, 26 eta 27, eta bestetik, abenduak 31 eta 31 eta urtarrilak 2 eta 3. Prezioa 20 euro da, bi txandetako bat aukeratzen bada, eta, 35 euro, biak aukeratuz gero.

■ Durante las vacaciones de Navidad, las niñas y niños de Ansoáin podrán participar en los talleres organizados por el Servicio de Euskera de la mano de Dindaia. Txikis de 3 a 8 años -1º de Educación Infantil hasta 3º de Primaria- podrán apuntarse a los campamentos de día (de 10:00 a 13:00 horas) que se dividirán en dos tandas: 23, 24, 26 y 27 de diciembre por un lado, y 30 y 31 de diciembre y 2 y 3 de enero por otro. El precio es de 20 euros si se opta por una de las tandas y de 35 euros si se opta por las dos.

## Harrobiko programen arrakasta / Éxito de los programas de Harrobi

